

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GUARDIAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2015.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den urriaren 26an Guardiako Udalaren eta Proyecto Integral Barbacana, SL (aurrerantzean, Barbacana), bere sozietate publikoaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldikoa.

HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du bi erakundeen kontuen gainean, zenbait salbuespen egin baditu ere. **Udalean salbuespen hauek ondare kontabilitateari** dagozkio, izan ere ezin ondorioztatu izan da Ibilgetu materialeko saldoen zuzentasuna, 9,2 milioi euro egin dutenena, eta ezta Barbacanaren ibilgetu finantzarioko saldoarena ere, 1,4 milioi eurorena; honezaz gain, ez dira hirigintzako aprobetxamenduengatik kobratzeko kontuak erregistratu, 188.868 euroren zenbatekoan. **Barbacanan** zenbait kontularitzako doiketa azaleratu dira; horiek erregistratzeak Ondare Garbia 251 mila euro gehituko luke; gainera, eraikuntza eskubideen salmenta eragiketa bat ez da erregistratu. Bestetik, Ibilgetuko inbertsioen saldoari, 1,3 milioi eurorenari, zuzenketa egin behar zaio balorazioan, zenbatekoa izango den zehazterik izan ez dugula.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen **finantza egoera** aztertu du eta ondorioztatu du Udalak duen eragiketa arrunten egiturak -2015ean sarrera arrunten gainean % 25,6ko aurrezki gordin maila izan duenak- etorkizuneko inbertsio planak finantzatzeko adinako baliabideak sortzen dituela, unean-unean geldikina (sarrera arrunten % 21) eta jaso ditzakeen diru-laguntzak baliatuz.

Gainera, txostenak ondorioztatu du Udal artekaritzak jaulkitako txostenaren arabera, 2015ean aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dela.

Bai Udalak bai sozietateak **zuzentasunez bete dute** euren ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz Udalak izapidetu dituen 2 kontratutan publikotasun eta lehia printzipioak urratu direla azaleratu den, udalaren tutoretzapeko etxebizitzaren kudeaketa eta energia elektrikoaren hornidura kontratuetan, hain zuzen ere. Honezaz gain, Osoko bilkurak Udalaren berezko bitartekotzat har ez daitekeen foru sozietate bati obrak agindu zizkion. Obra hauen hasierako proiektuko aldaketak Gobernu Batzordeak

onartu zituen, Osoko bilkurak onartu behar zituzkeenean eta proiektua sustraitik eraldatzen zutela aintzat hartuta, berriz lizitatu behar zatekeen.